



Espainiar Justizia Ministerioak, Argentinako Errepublika eta Espainiar Estatuaren artean Arlo Penalerako dituzten Estradizio eta Laguntza Juridikorako Hitzarmena ez beteaz, baztertu egin du Buenos Aireseko Epaitegitik jaso duen erregua edo exhortoa bertan tramitatzen ari den frankismoaren aurkako “Argentinako Kereila” ezagunak egina. Gobernu espainiarraren jarrera, esperokoa izatetik aparte, berriz ere eraso nabarmena egin dio kolpe militarrek eta diktadura frankistak eragindako milaka biktimen memoriari; baita prebarikazio delitu batetan erortzen egoteko posibilitatea ere izanik.

Epaiegi argentinarrak otsailaren 18an bidali zuen erregua, Gobernu espainiarrari martxoaren 9an eskuratua izan zena. Bertan frankismo garaian izandako ekimen kriminalegatik inputatuak diren 19 pertsonen galdeketak ezartzen dira. Atzerapen eta papergalduen azpijoko jakitunak zirelarik jabetuaz, Kereilaren abokatuak martxoaren 31an eskaera zehatza aurkeztu zuten Justizia Ministerioan argentinarrak erregua azkar bete dezan eta Auzitegi Nazionaleko Instrukzioko Epaitegi Nagusien Dekanatuari bidaltzeko agindua eman dezan deklarazioen harrerekin ekiteko.

Diligentziak egiteko Gobernu espainiarraren erantzun ezak Servini epaileak eta bere talde juridikoak apirilaren 4tik 22ra prestatuta zuten bidaia bertan behera utzi behar izan dute.

Egungo Gobernu espainiarraren jarrera oztopatzaile hau salatzen dugu eta hurrengoko Gobernuari exijitzen diegu Giza Eskubideei buruzko Arau Internazionalak prestutasunez errespetatu eta onar ditzatela, baita Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeetako Errelatore Bereziak azken urteetan zehar Estatu espainiarrari buruz egin dituzten Txostenetako gomendio guztien betetze zorrotza.

Gure instituzio adierazgarrienei, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Nafarroako Foru Erkidegoko Legebiltzarrari, aldarrikatzen diegu Gobernu espainiarrak egin dituen ekimen oztopatzaile hauen salaketa irmoa egin dezaten, inpunitatea babesten duen edozein oztopo, xedapen edo legedi jazartzeko exijituaz.

Euskal Herrian, 2016ko Apirilaren 7a